Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

# MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 32
Urtea/Año 2016
Abendua/Diciembre

## ACTIVIDADES DEL MES

**1 de diciembre. 19:00 horas**: Recital de alumnos de clarinete. Auditorio de la Escuela de Música "Andrés Isasi" en las Arenas.

**3 de diciembre. 19:30 horas**: Concierto de Piano y Guitarra a beneficio de "La Cuadri del Hospi". Luminita Duca y Toru Kannari. Auditorio de la Escuela de Música "Andrés Isasi" en Las Arenas.

**4, 11 y 18 de diciembre. 19:30 horas**: Jam Sessions a cargo del grupo de jazz de la Escuela de Música "Andrés Isasi". Bar "El Comercio", Las Arenas.

**13 de diciembre. 18:30 horas**: Recital de alumnos de percusión. Auditorio de la Escuela de Música en Las Arenas.

**16 de diciembre**: Concierto Didáctico de instrumentos de viento-madera. A las 11:00 horas para los centros escolares del municipio y a las 18:00 horas para las familias. Auditorio de la Escuela de Música "Andrés Isasi" en Las Arenas.

**17 de diciembre. 20:00 horas**: Concierto solidario de Navidad a favor de Bidesari. Areetxo Abesbatza, Zozoak Abesbatza y Coral Ondarreta Abesbatza. Auditorio de la Escuela de Música "Andrés Isasi" en Las Arenas.

**17 y 24 de diciembre**: Participación del alumnado de raíz tradicional en los desfiles de Olentzero.

**19 de diciembre. 19:00 horas**: Recital de flauta. Auditorio de la Escuela de Música "Andrés Isasi" en las Arenas.

**20 de diciembre. 18:00 horas**: Recital de alumnos de piano. Auditorio de la Escuela de Música "Andrés Isasi" en las Arenas.

**21 y 22 de diciembre. 18:15 horas y 19:30 horas**: Recitales de Navidad del alumnado de la Escuela de Música "Andrés Isasi"

**23 de diciembre. 20:00 horas**: Concierto de Navidad de la Banda de Música "Andrés Isasi". Iglesia de Santa Ana de Las Arenas.

**23 y 24 de diciembre**: Recitales del coro de la Escuela.

## BIENVENIDA

*Retomamos el contacto con vosotros en esta nueva edición de Musika Eskola Digitala. Es nuestra revista en formato digital; antes podíais consultarla en la web y ahora, además, os la enviamos al domicilio a través del correo electrónico. En ella queremos mostraros aspectos diferentes de la Escuela de Música que consideramos de interés. Unos pasan más desapercibidos que otros, a algunos les damos más importancia, a otros menos... La verdad es que todos forman parte de la Escuela de Música "Andrés Isasi". En "Andrés Isasi" todo lo que hacemos tiene carácter educativo.*
*El número de este mes se centrará en las actividades desarrolladas fuera del aula.*

## LAS ACTIVIDADES FUERA DEL AULA

Organizamos muchas actividades fuera del aula. Vamos a enumerar unas cuantas y, en este número, nos vamos a fijar exclusivamente en una. Del resto os iremos dando cuenta en próximas ediciones.
En la Musika Eskola organizamos: Audiciones y recitales de alumnos, tanto por especialidades instrumentales como audiciones generales con motivo de los fines de trimestre, o de Santa Cecilia. Organizamos también recitales fuera del centro, tanto en la calle como en otros establecimientos y equipamientos. Actúan, usualmente, nuestros combos de jazz, el coro, la banda, las orquestas, los grupos de raíz tradicional, etc. Organizamos conciertos didácticos, dirigidos a vosotros (las familias) y a los centros educativos del municipio. También conciertos "al estilo clásico", con los que queremos acercaros el maravilloso mundo de la interpretación de la música. Entre ellos destaca el ciclo "Neguko Bidaia". Desde la biblioteca facilitamos la asistencia, a través de unos bonos, a los ciclos de conciertos de la Orquesta Sinfónica de Bilbao y la de Euskadi en el Palacio Euskalduna de Bilbao. También organizamos las charlas musicales que hacemos en la Escuela para adultos... Este mes nos fijamos en nuestras audiciones.

### Nuestras audiciones

Son parte importante en el proceso educativo de nuestro alumnado. A través de ellas educamos para superar el "miedo escénico", inculcamos responsabilidad ante el estudio pues hay que mostrar el trabajo realizado y es también momento de mostrar y celebrar los logros y frutos de la tarea bien hecha. Son importantes también porque nos permiten conocer y ver otras áreas y disciplinas de nuestra Escuela, además de alumnado de otras especialidades y sus familiares. Además, nos permiten tomarnos el pulso en cuanto a *¿Cómo hacemos música?*
Por eso es importante que sepamos transmitiros que no perdemos clase, porque tienen un importante componente educativo. Y que hay que respetar la actividad en su totalidad. Tan importante es el primer alumno que toca como el último, y todos *salen a tocar* dando lo mejor de sí mismos, y quieren ser escuchados y reconocidos. Es triste ver cómo hay ocasiones en las que sólo escuchamos a nuestro hijo, o a un determinado alumno...
Hagamos de estas actividades la siembra para aprender a ser unos buenos intérpretes y mejores oyentes.

## Calendario del mes

Diciembre

| l | m | x | j | v | s | d |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

- Días festivos
- Actividades de la Escuela
- Actividades en festivo

Getxo
ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA
bizi ezazu

MED
Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 32
Urtea/Año 2016
Abendua/Diciembre

## HILEKO JARDUERAK

**Abenduaren 1an. 19:00etan**: Klarinete-ikasleen emanaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abenduaren 3an. 19:30ean**: Piano eta gitarra kontzertua "La Cuadri del Hospi"-ren alde. Luminita Duca eta Toru Kannari. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abenduaren 4, 11 eta 18an. 19:30ean**: "Andrés Isasi" Musika Eskolako jazz-taldeak eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

**Abenduaren 13an. 18:30ean**: Perkusio-ikasleen emanaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abeduaren 16an**: Haize-zurezko tresnen kontzertu didaktikoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat eta 18:00etan familientzat. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abenduaren 17an. 20:00etan**: Gabonetako kontzertu solidarioa Bidesariren alde. Areetxo Abesbatza, Zozoak Abesbatza eta Coral Ondarreta Abesbatza. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abenduaren 17 eta 24an**: Bertako instrumentuen ikasleek Olentzeroren desfileetan parte hartuko dute.

**Abenduaren 19an. 19:00etan**: Flauta-ikasleen emanaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abenduaren 20an. 18:00etan**: Piano-ikasleen emanaldia "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

**Abenduaren 21 eta 22an. 18:15 eta 19:30ean**: Recitales de Navidad del alumnado de la Escuela de Música "Andrés Isasi"

**Abenduaren 23an. 20:00etan**: "Andrés Isasi" Musika-bandaren Gabonetako Kontzertua. Areetako Santa Ana elizan.

**Abenduaren 23 eta 24an**: Eskolako abesbatzaren errezitaldiak.

## *ONGI ETORRIA*

*Berriro ere zuekin harremanetan jartzen gara Musika Eskola Digitalaren edizio berri honekin. Gure formatu digitaleko aldizkaria da; lehen web-orrian ikusteko aukera zenuten eta orain, gainera, etxera helduko zaizue posta elektronikoaren bidez. Bertan, gure ustez interesgarriak diren Musika Eskolako alde desberdinak erakutsi nahi dizkizuegu. Batzuk ez dira beste batzuk bezain nabarmenak, batzuei besteei baino garrantzia gehiago ematen diegu... Egia esan denak dira "Andrés Isasi" Musika Eskolaren parte. "Andrés Isasi"-n egiten dugun guztiak dauka izaera hezigarria.*
*Hilabete honetako zenbakia geletatik kanpo egiten ditugun jardueretaz arduratuko da.*

## GELATIK KANPOKO JARDUERAK

Jarduera asko antolatzen ditugu geletatik kanpo. Baten batzuk aipatuko ditugu eta, zenbaki honetan, bakar bati buruz hitz egiten arituko gara. Gainerakoak datozen zenbakietan azalduko dizkizuegu.
Hainbat gauza antolatzen ditugu Musika Eskolan: Ikasleen entzunaldi eta emanaldiak, bai tresnaka bai eta entzunaldi orokorrak hiruhilekoen amaieretan edo Santa Zezilia egunean. Zentrutik kanpo ere antolatzen ditugu errezitaldiak, bai kalean bai eta beste leku batzuetan ere. Orokorrean, jazz-konboek, abesbatzak, bandak, orkestrek eta bertako musika-tresnen taldeek parte hartzen dute ekitaldi hauetan. Zuentzat (familientzat) eta udalerriko ikastetxeentzat kontzertu didaktikoak antolatzen ditugu. Baita kontzertuak "era klasikoan" ere; hauekin, musikaren interpretazioaren mundu zoragarria hurbildu nahi dizuegu. Hauen artean, "Neguko Bidaia" zikloa nabarmentzen da. Liburutegitik, bonuen bidez, Bilboko eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoen Bilboko Euskalduna Jauregian antolatutako kontzertu-zikloetara joateko aukera ematen dizuegu. Eskolan ematen ditugun helduentzako hitzaldi musikalak ere antolatzen ditugu... Hilabete honetan, gure entzunaldiei buruz hitz egingo dugu.

### Gure entzunaldiak

Oso garrantzitsuak dira gure ikasleen heziketa-prozesuan. Hauen bitartez, "beldur eszenikoa" gainditzeko hezitzen dugu, ikastearen erantzukizuna bultzatzen dugu egindako lana erakutsi behar baita, eta ondo egindako lanak emandakoa erakutsi eta ospatzeko garaia da ere. Garrantzitsuak dira ere gure Eskolako beste arlo eta diziplinak erakusten dizkigutelako, bai eta beste espezialitateetako ikasleak eta beraien familiakoak ere. Gainera, musika nola egiten ikusteko aukera ematen digute.
Horregatik oso garrantzitsua da guretzat ez dugula eskolarik galtzen uler dezazuen, oso osagarri hezitzaile garrantzitsua dutelako. Eta jarduera osoa errespetatu behar dela. Ikasle guztiek dute garrantzia bera eta duten hoberena erakusteko asmoz ateratzen dira jotzera eta entzuleen arreta eta oniritzia espero dute. Oso tristea da ikustea askotan geure seme-alaba edo ikasle ezagun bat besterik ez dugula entzuten...
Ekitaldi hauek izan daitezela interpretatzaile onak eta entzule hobeagoak izaten ikasteko hazia.

## Hileko egutegia

Abendua

| al | ar | az | og | or | la | ig |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |

Jai-egunak
Jarduerak eskolan
Jarduerak jai-egunetan

Las Mercedes, 6 48930 GETXO (Bizkaia) Tel: 944 646 011 - Fax: 944 641 311 aisasi@getxo.net